



Gure ideia giltza arrunt baten antzekoa izan daiteke, baina horri buelta berritzaile bat ematen dio, askoz abantaila gehiago gehituz.

Normalean erabiltzen dugun giltza galdu daiteke edo lapurtu ahal dizute, baina gure ideia app baten bidez denez, ezin da galdu, ez bada mugikorra galtzen. Hala ere, mugikorra galtzean, app-a telefono berrian instalatzea nahikoa izango litzateke berriro martxan jartzeko.

Ildo beretik, ohiko giltza bat galtzen edo lapurtzen badigute, ezin dugu ziurtatu inork gure etxera lapurtzera etorriko ez denik. Baina gure ideiarekin hori arazo bat izateari utziko lioke. Izan ere, desgaitu ahal da edozer gertatzen bada.

Horrez gain, langileen lan orduetan soilik egongo da aktibatuta app-a, beraz ezin izango da erabili lan-orduetatik kanpo. Gainera, segurtasun gehiago ahalbidetzeko, arazoren bat egongo balitz, aplikazioan erregistraturik geratuko lirateke erabiltzaileen mugimendu guztiak; hala nola langileak sartzen eta irtetzen diren orduak eta enpresa bakoitzeko zein langilek erabili duen sistema. Nahikoa izango ez balitz, larritu behar ez zarenez, gure sistemak ziurtatzen duen segurtasunak lasaitasuna proportzionatzen du. Hain zuzen ere, kontrolek aurretik aipatutakoa bermatzen dutelako.

Bereziki, gure produktuak erosotasuna eta seguritatea ahalbidetzen ditu, bizilagunentzat baita langileentzat ere.

Alde batetik, auzokideentzako eroso da hurrengo arrazoiarengatik: gutun edo pakete bat ekartzen diguten bakoitzean, ez gara arduratu behar izango egiten ari garena bertan behera uzteaz eta etxeko atea irekitzera joan behar izateaz edo etxean egon behar izateaz. Gure ideiak hori eskaintzen du, erosotasuna eta arduratu behar ez izatea.

Lorzainen eta garbitzaileen kasuan, segurtasuna eskaintzen du. Normalean hauek giltza baten jabe izaten dira, momentu guztietan erabili dezaketena. Gure app-ari esker, ez dute giltzik izan behar, app-a erabiliko dute eta haien lan-orduetan soilik, horrela lanalditik kanpo ezin izango dira sartu app-a desaktibaturik egongo delako haientzat.

Beste alde batetik, langileentzako erosotasuna eskaintzen duenez gain, bizkortasuna ere ahalbidetzen du: postariak etxeetara joatean, itxaron behar izaten dute norbait atea irekitzea, batzuetan luze iraun dezakeena. Gure produktuari esker, langileak portalera heldu bezain laster sartu ahal izango da.


- Ezaugarri fisikoak

Gure produktuaren ezaugarri fisikoei dagokionez, fisikoki izango duguna kamera eta banatzaileentzako kutxa izango dira.



Portaleko kamera egiteko qr eskaner bat sartu beharko genuke kameran.

Banatzaileentzako kutxari dagokionez 1,80 metro inguruko altuera izango luke, eta barruan altuera ezberdinetako apalak egongo lirateke.



Aplikazioa: honen sistema osoa sortu beharko genuke (azaldu dugun bezala). Haren izena DOOP (DOOr OPen) izango litzateke eta haren logoa hurrengoa:

